

3/2018 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
APIRILAREN 10ean EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

PRESIDENTEA:

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea.*

1. PRESIDENTEORDEA:

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruénigoko alkatea.*

2. PRESIDENTEORDEA:

Jesús M^a Rodríguez Gómez jn., *Ribaforadako alkatea.*

BATZORDEKIDEAK:

Unai Laco Goñi jn., *Agoizko alkatea.*

Ur Algeró Chivite jn., *Aresoko alkatea.*

Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea.*

D. Ángel Obanos Galar, *Artikako Kontzejuko burua.*

Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea.*

Nieves Recalde Zaratigui and., *Etxagueko Kontzejuko burua.*

Koldo Leoz Garciandia jn., *Lizarrako alkatea.*

María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea.*

Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea.*

Arturo Goldaracena Asa jn., *Tafallako alkatea.*

Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea.*

Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko Kontzejuko burua.*

Yolanda González García and., *Vianako alkatea.*

Ezin etorria adierazi dute:

David Alvarez Yanguas jn., *Castejóngo alkatea.*

Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesibarko alkatea.*

Ángel Navallas Echarte jn., *Zangozako alkatea.*

Joseba Asirón Saez jn., *Iruñeko alkatea.*

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hemezortziko apirilaren hamarrean, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDAA

- 1.- Aurreko bilkuraren akta onestea.
- 2.- Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.
- 3.- 2017ko kontuak.
- 4.- 2018ko kontuak.
- 5.- Hitzarmena Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta NUKFren artean, Berdintasunaren aldeko Nafarroako Udalerrien Sarea abian jartzeko.
- 6.- Plan estrategikoa prestatzeko jarduketan hasiera.
- 7.- Presidentearen informazioa.
- 8.- Galde-eskeak.

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren akta onestea

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldeztu aurretik irakurri beharrik gabe, presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrik duen haren inguruan.

Inork ez du oharrik egin.

ERABAKI DA:

2018ko martxoaren 13an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA.- Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Nafarroako Merkataritza Kontseilua (2018/03/12).**Batzorde horretako ordezkariak jakinarazi du martxoaren 12ko bilkuran aztertu zela beste jaiegun batean irekitzeko aukera.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2018/03/14).** Jakinarazi da bilkura horretan mahai gainean utzi zela erabilera publikoko igerilekuen betebeharrak eta baldintzak arautzen dituen foru dekretuaren proiektua, toki ordezkariak zenbait objekzio aurkeztu baitzuen, eta, proiektuaren arduradunek zehaztu zuten moduan, hura berriz aztertu beharra zuten. Batzorde horretan aldeko txostena egin zitzaion Ingurumen Esku-hartzeari buruzko Foru Legearen proiektuari, kontuan hartu baitziren toki ordezkariak eginiko proposamen ugari.
- **Nafarroako Eskola Kontseilua (2018/03/15).**Kontseilu horretako ordezkariak jakinarazi du toki esparruan hezkuntza arloan egiten diren jarduerak guztiak sartu gogo direla hezkuntza sistemari buruzko txostenaren barnean. Horretarako, toki entitateei eskatu zaie egin dituzten gisa horretako jardueren berri eman dezatela. Bestalde, jakinarazi da maiatzaren 22an jardunaldi bat egingen dela parkeei eta haurtzaroari buruz.
- **NILSAko Administrazio Kontseilua (2018/03/21).**2017ko kontuak onetsi ziren.
- **Gardentasun Kontseilua (2018/04/09).**Gardentasun Kontseiluko buru berria aurkeztu zen.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA.- 2017ko kontuak.

Presidenteak NUKFren Kontuen proposamena aurkeztu du.

Nabarmendu du partida batzuetan desbideratzea handiagoa izan dela aurrekontukoa baino.

Langileria gastuen partidari dagokionez, adierazi du txikiagoa izan dela gauzatu dena aurrekontukoa baino, euskara teknikari-itzultzailea ekitaldiaren erdian kontratatu zelako. Gauzatze txikiago horrek badu bere isla aholkularitza teknikoaren partidan, gauzatze handiagoa baitu, itzultzearen kanpoko zerbitzuaren kostuak dakartzalako.

Komuna eraberritzearen ondoriozko gastuak ere aipatu ditu, aurrekontuaren barnean ez zeudenak.

Prestakuntza Planari dagokionez, adierazi du gauzatutako zenbatekoa handiagoa dela aurrekontukoa baino, zeren, 2016ko zenbateko bera zehaztu arren aurrekontuan, jasotakoa halako bi izan baitzen.

Azken emaitzaz bezainbatean, azaldu du doiagoa dela aurreko ekitaldietan baino. Superabita 48.955,90 eurokoa da, eta gerakina, 1.3763461,932 eurokoa.

Presidenteak gerakinaren bilakaeraren berri eman du. Zehaztu du zenbait ekitalditan 160.000 euroko superabita egon dela, 2017 baino lehenago.

Ekitaldi honetarako, espero da emaitza are doiagoa izatea.

Batzordearen onespenera jarrita, hiru abstentziorekin, gehiengoz

ERABAKI DA:

Kontuak onestea Batzarrak onets dezan proposatu den moduan.

4. PUNTUA.- 2018ko kuotak.

Proposatu da NUKFren kuotak onestea 2018ko ekitaldirako, egun indarra dutenak dauden-daudenean utziz. Hona hemen:

2018RAKO PROPOSATUTAKO KUOTA				
			2018KO KUOTA	% ALDAKETA 2018/2017
UDAL BAKUNAK			0,3428	%0
UDAL KONPOSATUAK			0,1089	%0
KONTZEJUAK			0,2999	%0
BESTELAKO ENTITATEAK			0,0822	%0
GUTXIENEKO KUOTA			40,00	%0
AURREKONTUAREN % (POP. GABE)			%0,045	%0

ERABAKI DA:

NUKFren kuotak onestea proposatu den bezala.

5. PUNTUA- Hitzarmena Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta NUKFren artean, Berdintasunaren aldeko Nafarroako Udalerrien Sarea abian jartzeko.

Presidenteak azaldu du lanean aritu dela Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin hitzarmen bat prestatzeko, helburu duena Berdintasunaren aldeko Entitateen Sarea abian jartzea.

Adierazi du NUKFren xedeetako bat dela berdintasunaren aldeko politikak bultzatzea. Gainera, zenbait toki entitatek eskatu diote NUKFri halako sare bat sor zezala helburu hori betetzeko. Orobat, partida bat ezarri da aurrekontuetan NUKFrekin lankidetzan aritzeko berdintasunaren arloan.

Hortaz, elkarlanean aritu da Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin eta entitate eskatzaileetako berdintasun teknikariek.

NUKFren aldetik, hasieratik baztertu zen NUKFn bertan berdintasun arloko zerbitzu bat martxan jartzeko ideia, irizten baitzen lehenago hausnarketa egin beharra zegoela NUKFk bere gain hartu behar dituen zerbitzuen eta jardueren inguruan; izan ere, hala egingen da NUKFren Plan Estrategikoarekin.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin landu den hitzarmenak helburu zuen bi erakundeen arteko lankidetzaren egituratzea eta Sarea abian jartzea eta harekin aritzea, baina, betiere, NUKFtik kanpo. Halaber, bide ematen du NUKFk berdintasunaren arloko jarduketak egiteko 2018an.

Edonola ere, gaur berean aurkeztu zaie Sarea eskatzen duten toki entitateei eta haien teknikariei eta ez daude erabat ados planteamendu horrekin.

Hori dela eta, gaia mahai gainean utziko da eta aztertuko da lankidetzaren beste modu batean aritzeko aukera, aurtengo aurrekontuan dagoen partida erabili ahal izateko, sare baten sorrerarekin lotuta egon gabe.

Gaia Batzorde Betearazleko kideen onespenera jarrita, zenbaitek hitza hartu dute.

Rodriguez jaunak hitza hartu eta esan du egiaztatu dela Presidenteak aipatutako bilkuraren asmoa izan dela NUKFk hartzea bere gain Sarearen kudeaketa.

Garbayo andreak adierazi du NUKFk ez duela berezko eskumen hori, eta Nafarroako Gobernuak hartu beharko lukeela bere gain.

Goldaracena jaunak adierazi du ezen, berari helarazi zitzaionaren arabera, teknikariek langile iraunkor bat nahi dutela, berdintasunaren arloko koordinazioa egiteko.

Muxika jaunak hitza hartuta, esan du bere ikuspuntutik horrek bide eman diela udalei gaian esku hartzeko eta nork bere helburuak planteatzeko.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea eta gaia mahai gainean uztea, lanean jarraitzeko.

6. PUNTUA.-Plan estrategikoa prestatzeko jarduketaren hasiera.

Presidenteak gogora ekarri du legegintzaldi honetako helburuetako bat dela NUKFren Plan Estrategikoa prestatzea.

Hori dela eta, bidezko da behar diren lanak hastea.

Horretarako, proposatu du lan talde bat sortzea, horretan parte hartu nahi duten Batzorde Betearazleko kide guztiek osatuko dutena. Talde horrek finkatu beharko du zer jarduketa egin behar den, zein den egutegia eta gairi heldu behar zaion.

Honako hauek dira egin daitezkeen jarduketaren batzuk:

1. Elkarriketak egitea egokitzen jotzen diren interes taldeekin.
2. Barneko prozesu bat egitea toki entitateekin. Horretarako, lau edo bost bilkura programatu beharko liriteke eskualdeetan, azaltzeko zer den NUKF eta eztabaidan hasteko, baloratzearren zer egin daitezkeen eta zer falta duen.

3. Eratu den Kontzejuen taldearekin aritzea lanean, hausnartzeko zer rol duten Kontzejuak NUKFren barnean.

Zehaztu du urte bukaerarako azken agiri bat eduki beharko genukeela, NUKFren Batzorde Betearazleak eta Batzarrak onesteko modukoa.

ERABAKI DA:

Adieraztea NUKFren Plan Estrategikoa prestatzeko jarduketan hasieraren berri dutela eta lan talde baten sorrera onestea, zeina horretan parte hartu nahi duten Batzorde Betearazleko kideek osatuko baitute.

7. PUNTUA.- Presidentearen informazioa

Presidenteak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Joan den martxoaren 16an bilkura bat izan zuen Hezkuntza Departamentuko arduradun batzuekin eta jakinarazi zioten txosten bat igorriko zutela 0-3 urteetako Haur Hezkuntzari buruz.
- Martxoaren 16an, halaber, bilkura bat izan zuen María José Caudevillarekin erantzukizun sozial korporatiboari buruz. Bost udalekin egin nahi du lan, esperientzia pilotu gisa.
- Martxoaren 20an Herritarren partaidetzarako gidaliburua aurkeztu zen.
- Martxoaren 23an bilkura bat izan zuen Ana Herrera kontseilariarekin, non Kultura Eskubideei buruzko Foru Legearen proiektua auzatu zitzaion.
- Eguesibarko Udaleko alkatearekin eta teknikariekin izan zuen bilkura bat, administrazio elektronikoa ezartzeko egin diren jarduketan berri izateko.
- Gaur egin dela herritarren partaidetzari buruzko jardunaldia.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

8. PUNTUA.- Galde-eskeak

Goldaracena jaunak galdetu du zer konponbide eman dakioken abandonatutako zakurrak zaintzeko betebeharrari. Azaldu du zer arazo duten bere udalean, zeina larriagotzen baita zeren, ondoko udalerrietan zerbitzu hori ez dutenez, Tafallak hartu behar baitu hura bere gain.

Galdetu du nola hel dakikokeen horri denon artean.

Leoz jaunak azaldu du Lizarran hitzarmena dutela elkarte batekin horrek kudea dezan zerbitzu hori. Udalak lokala uzten die.

Rodríguez jaunak adierazi du zerbitzu hori Erriberako Hondakinen Mankomunitateari esleitu diotela. Enpresa baten bidez ematen du. Esan du informazioa igorriko digula hura egiteko moduaren inguruan.

Gain honi dagokionez, proposatu da Nafarroako Gobernuarekin mintzatzen ahal dela.

Idazkari nagusiak zehaztu du Animaliak Babesteko Foru Legean orain egin gogo den aldaketarekin egoki izan daitekeela gai hori lantzea, lege horretan gai hori arautuko baita.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko sei eta erdiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.